

# B

BARREN

TOKIKOMI



**“Musikan aurrera egiteko  
laguntzarik ez dago”**

Juanmi Abal, Laia taldeko abeslaria

Last Tour



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



**Elgoibarko Herri Eskola**  
Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 06 79  
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net


## Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Otsailak 6

### MATRIKULAZIOA

2010 - 2011

### OTSAILAREN 1etik 12ra

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



**Elgoibar Arreiturre BHI**  
San Roke, 11  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: www.elgoibarbhi.net

## Aspertu!!!

Gabonak joanda nekatuta eta gainezka harrapatu nau urte berriak eta, hara non, iritzia ematea egokitu zaidan. Errepasoa egin dut.

Mendiko gure abenturak kontatu nitzake: paisaiak deskribatu, istripuen kronika egin, Marimendiren gonak astindu... Jardun ninteko politikari buruz ere, baina mendian baino errazago galtzen naiz bidezidor horietan. Dendariaren betaurrekoetatik umeak gaur egun dendetan nola portatzen diren kontatu nezake, ze jarrera dituzten txikiek eta euren gurasoek erosketak egiten ari direnean... Idatzi nezake ze neketsua den Gabonetan sistemari jarraituz familiarekin kunplitzea: otorduak prestatzea, jasotzea, opariak erostea..., lasai-lasai oporretan egon beharrean. Gai posibleak lirateke krisi garaian lanari nola ekin, edo pilulak hartu gabe menopausiari eta tristurari nola aurre egin...

Baina ez, gaur ez dut horri buruz iritzirik eman nahi, izan ere, ondorio

batera iritsi naiz: ez aspertzeak duen garrantziaz ohartu naiz. Ez aspertzeko gaitasunaren inportantziaz. Gure amak laurogei urte ditu. Osasunez larri xamar dabil baina, hala ere, bere eguneroko gauzetan ez da aspertzen. Gure begietatik begiratuta, bere egun guztiak berdin-berdinak dira, baina amak ez du asperdurarako tarterik aurkitzen. Zoriontsu bizi da bere munduan, eta hori ez zahartzea da. Baina hamabost edo hogeituroko neska-mutilei askotan entzuten diegu “aspertuta nago, ez dakit zer egin” esaldi famatua, eta halakoetan pentsatzen dut esaldi hori esaten duten bakoitzean zahartzen direla pixka bat gehiago, pixka bat gehiago... Geure burua entretenitzeko gai ez bagara, jai dugu! Zaharra izatea ez da nagusia izatea. Aspertzen bazara, zuretzako kalte: egunak denontzat ditu 24 ordu. Banatu!!! Eta gazte mantenduko zara.

Izaskun Estibaritz



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitze gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Ondorio batera iritsi naiz: ez aspertzeak duen garrantziaz ohartu naiz”**

**BETE DUZU ALBISTEAK**

**E-POSTAZ**

**JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO  
BIZPAHIRU  
ALBISTE JASOKO  
DITUZU!**

**www.elgoiBARREN.net**

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**



# JUANMI ABAL

LAIA TALDEKO ABESLARIA

Juanmi Abal elgoibartarrak bigarren diskoa kaleratu berri du Laia musika taldean. Taldeko abeslaria eta gitarra jolea da, eta abestien letrak ere egiten ditu. Hamabi abesti dauzka lana *Laia II* diskoak. Sei hilabete eman dituzte grabazio lanetan, eta emaitzarekin oso gustura geratu direla aitortu du. Rock estiloko musika egiten du Laiak, baina azkenaldian kontzertu akustikoak ere eskaintzen ari dira, eta gustura dihardutela aitortu du 28 urteko gazteak.

**“Jende askoren aurrean jotzen bezain gustura sentitzen gara areto txikietan”**



**Bigarren diskoa kaleratu berri duzue. Zer aurkitu daiteke bertan?**

Aurreko diskoarekin konparatuta, beste zentzu batean hartu dugu musika, eta geuk egin ditugu musika grabaketa guztiak. Abesti bakoitzak bere izaera eta nortasuna ditu, eta hori bilatu nahi izan dugu musika-rekin. Geurea izatea nahi genuen; geure nortasuna islatzea, eta lortu dugula uste dugu. Hamabi abesti daude, eta lehenengo sarrera bat da, musika kutxa bat, alegia. Kanta denak euskaraz diren arren, abesti baten zatitxo bat katalanez dago.

**Laia II izena jarri diozue lanari. Nola aukeratzan da disko baten izenburua?**

Guri titulu luzeak gustatzen zaizkigu, baina ez da erraza abesti multzo bati izenburua jartzea. Bigarren disko honetan hainbat musika estilo landu ditugu, eta hirugarrena nolakoa izango den ez daukagu batere argi. Ez dakigu zein estilo landuko dugun,

baina argi daukagu bigarren diskoko bira amaitu arte ez garela hurrengo lanarekin hasiko. Orduan, iparrorratz bat jarri dugu azalean, eta diskoa zabaltzerakoan “Norabiderik zehaztu gabe, gure bidea eraikitzen jarraituko dugu”, irakurri daiteke. Diskoaren azalean jartzeko oso luzea zenez, Laia II jarri genuen kanpoan, eta disko honi eman nahi diogun zentzua barruan idatzi genuen. **Gaur egun disko gutxi saltzen dira. Zein aukera dago aurrera egiteko?**

Berri Txarrak taldekoek esaten duten moduan, musikaren egoera Euskal Herrian dekadentziaren onenean dago. Jendeak Internetetik jaisten du musika, eta diskorik ez da saltzen. Gainera, jendea betiko musika taldeak entzutera ohitu da, eta ez da ausartzen beste ezer entzutera. Ikustea besterik ez dago talde ezagunak banatzen direnean, ez dutela izaten aurrekoak besteko indarririk. Adibidez, Etsaiak taldea banatu ze-

nean, beste proiektuek ez zuten arrakasta bera eduki; Latzen taldea, berriz, Sen bihurtu zen, eta orain Une, baina jendea Latzenekin geratu da. Gauza berriak probatzea asko kostatzen zaio jendeari, eta irriti-kateek ere ez dute batere laguntzen. Irratian ez da euskal musikarik entzuten. Euskadi Gaztea jarri, eta beste edozein irratian entzuten den musika komertzial berbera dago. Berri Txarrak eta beste euskal talderen bat jarriko dute, baina oso gutxi. Orduan jendea musika hori entzutera ohitzen da.

**Kontzertuak ematea izan daiteke aukera?**

Hori ere gero eta zailagoa da. Euskal Herrian lehen gaztetxe pila bat zeuden, eta, hein batean, kultura sustatzeko sortu ziren. Ez musika bakarrik, antzerkiak edo beste-lako kultura-ekintzak egiteko. Baina azkenaldian gaztetxeak gazte-lokal bihurtu dira, eta gauza gutxi antolatzen dituzte. Badau-

de ekintzak antolatzen dituzten gaztetxe batzuk, baina oso gutxi dira.

#### **Orduan, zein irtenbide dauka musikak?**

Musikak Euskal Herrian ez dauka irtenbiderik. Ken Zazpi, Berri Txarrak edo Su Ta Gar taldea bazara, izango duzu aukera, baina bestela, jai dago. Kontzertuetara ez da jenderik joaten. Gu ikustera lagunak ere ez dira etortzen. Horrek, alde batetik, poztu egiten gaitu, jende ezezaguna gu ikustera etortzea pozgarria ere bada, eta Laia norabait iritsi dela sentiarazten digu. Baina pena da Euskal Herrian oso talde on pila bat egon arren, eta ez direla inora iritsiko. Agian hori da arazoa, asko direla. Pentsa, Elgoibarren izan dugu sekulako taldea: Arima Beltza. Azken urteotako talderik berritzaileena izan da musika aldetik, eta gainera oso onak izan dira. Pena izan da aurrera ez jarraitzea. Nik ikusi izan ditut kontzertu oso onak tabernetan, baia jende askok nahiago du alboko tabernan reageton musika entzutea. Gu kontzertuak ematen ari gara, eta bigarren diskoa grabatu dugu, baina pila bat mugitu garelako.

**“Musikak ez dauka irtenbiderik Euskal Herrian. Kontzertuetara ez da jenderik joaten”**

#### **Musika, hortaz, zaletasuna da zuentzat?**

Bai. Guk jotzeko beharra daukagu, eta ahal dugun bitartean horrela jarraituko dugu. Diru apur bat lortzen badugu, askoz hobeto, baina ez badugu lortzen, ez da ezer pasatuko. Taldekide batzuk lanean ari gara, eta

beste batzuk ikasleak dira. Laia gure bizitzaren parte bat da, parte garrantzitsua, baina musika zaletasun bat da.

#### **Letrak zeuk idazten dituzu. Zer abesten dio Laiak?**

Gustatzen zaizkion gauzei, eta batez ere, maitasun ezari. Nazkatuta gaudela esateko erabiltzen ditugu abestiak, eta sistemaren kontra asko ibiltzen gara. Gure sistema ez dago ondo, eta ez du ezertan laguntzen. Elgoibarren, esate baterako, non daude musikarientzako laguntzak? Musika Eskola garrantzitsua daukagu, eta musikari bikainak irten dira bertatik, baina musikan aurrera jarraitzeko laguntzarik ez dago.

#### **Nola moldatzen zarete entseguak egiteko?**

Mutrikun daukagu lokala, Kalbario gainean. Mutrikuko Udalak lagundu zigun, eta hango edozein talde hartzen duten bezala hartu gintuzten. Egia esanda, oso gutxi entsaiatzen dugu. Taldekide bakoitza leku batekoa da, eta ez da erraza elkartzeko. Bakoitzak bere aldetik egiten ditu etxeko lanak. Nik ahotsa lantzen dut, eta gitarrako nire zatiak praktikatzeko ditut. Bakoitzak bere zereginak dauzka.

#### **Metallica bezalako taldeekin agertu zineten 2007ko BBK Live Festival kontzertuan. Zein motatako kontzertuak dituzu gustuko?**

Jende askoren aurrean jotzen bezain gustura sentitzen gara areto txikietan. Bilbon oso ondo pasatu genuen. 10.000 pertsonen aurrean jo genuen, eta sekulakoa izan zen. Baina Amrotoko Gaztetxean ere berdin gozatzen dugu. Aurreko diskoarekin Katalunian eta Zaragozan ibili ginen, eta bigarren lanarekin Madrilera, Errioxara, Kantabriara eta Asturias aldera joango gara.

#### **Nongo publikoa da onena?**

Orain arte, Gernikan aurkitu izan dugu publikorik onena. Iparragirre izeneko areto txiki bat dago han, eta sekulako harrera izan

**“Kulturaren alde indarrak batu beharko lituzkete Elgoibarko Udalak eta Gazte Asanbladak”**

dugu. Kataluniara joan ginenean, inork ez gintuen ezagutzen, baina oso ondo hartu gintuzten eta disko pila bat saldu genituen.

#### **Noizko kontzertu bat Elgoibarren?**

Zein aukera dago Elgoibarren jotzeko? Udalekoek deitu zidaten behin, ni elgoibartarra nintzela-eta, doan jotzeko eskatzeko. Baina gero 10.000 euro gastatu behar zituzten kanpoko talde bat ekartzeko. Nire taldekideak ez zirela herrikoak azaldu nien, eta bidaiak soilik, hainbat gastu dituela, baina alferrik. Taldekideekin hitz egin nuen, eta ezezkoa eman genien. Aukerarik balego, gustatuko litzaidake Elgoibarren jotzea. Lehen Nok taldean nenbilen, eta Gazte Asanbladak antolatuta, Madalan jo genuen. Horrelako zerbait falta da hemen. Gazte Asanbladak eta Udalak bat egin behar dute jaietako kontzertuak antolatzerakoan. Badakit harremana ez dela ona, baina jaietarako ahalegin hori eskatuko nieke. Udalak askotan errazena egiten du: Indarrean dagoen talde handi bat ekarri, eta kitto. Ekon eta Jousilouli ekarri zituztenean, esate baterako, Plaza Handian oso jende gutxi egon zen. Elgoibarko herriak ez zuen hori nahi, eta seguru nago Gazte Asanbladak beste ideiarekin bat izango lukeela. Kulturaren alde lan egiteko ideologiak alde batera laga eta indarrak batu beharko lituzkete.

**Ainhoa Andonegi**





BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### CMEko langileak borrokan

Talde-k (EAEn arriskuko inbertsioetan diharduen enpresak), CMEko akziodun nagusia zenak, duela hilabete gutxi, egun administrari bakarra izango den Neu Zeit enpresa sortu zuen. Horien buruhauste bakarra izan da gertatutako guztiak, legalki, garbi ateratzea, nahiz eta atzean beraiek egon. Egund, legalki Neu Zeitek agintzen du, baina Talde da agindu guzti horien atzean dagoena, konkretuki, Zalbidegoitia jauna.

Zalbidegoitia jauna: zure aburu nagusia Euskadiko inbertsioak bideratzea izanik, nola liteke Itziarren kokatutako CMEko langileen azkeneko zortzi nominak (udako extra, abuztua, iraila, urria, azaroa, abendua, gabonetako paga, urtarila) ordaindu gabe izatea? Zurekin, ederki doa Euskadi.

Langileok badakigu zein merkeak garen. Egundegun, orain arte, lanean jardun dugu, lantokira joan gara, gure lan orduak bete ditugu eta dirua poltsikotik ipini, hitzik esan gabe! Euskadiko politika eta ekonomia gaietan buru den pertsona baten erabakien menpe gaude CMEko langile garenak eta bertatik bizi garen 85 familiak; berak esandakoaren zain, emandakoaren zain...

Zuek kontratatutako abokatu batek duela hilabete batzuk esan zigun, *euskaldunaren hitza* emanez, gainera, hilero-hilero gure soldatak kobratuko genituela. Lamikiz jauna, hau al da zure *euskaldunaren hitza*? Astero egongo gara Bilbon, Talderen eta Ibarrondo-Lamikizen egoitza aurrean.

Larunbatean, urtarilaren 30ean, denok Elgoibarrera, 12:00etan Udaletxe aurrean. Eskertuko dugu zuen laguntza.

CMEko langileak ☺

### Esker ona

Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXVII edizioa antolatzen jardun duen Mintxeta AT batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2010eko urtarilaren 24an egin zen krosak.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzeko orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik, Elgoibarko herriaren izena, astebetetz, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan ere Gipuzkoako krosik onena izan gara; eta antolaketari eta kirol arloari dago-kionean, estatuko hoberenatarikoa.

Hortaz, lanean jarraituko dugu datorren urtea ere aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2011ko urtarilean. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea ☺

### Bildurrez aurreratzen dozun horri

Txirriindulari bikote edo talde bat (bi laguneko ilaretan, mesedez) ikusten ditzuzunian ez daukazu urduri ipiñi biharrik: motel-du abiaduria eta itxoin nahikua ikusten dozun lekura arte. Paretik inor ez datorrenaz ziur zaudenian, metro t'erdiko tartia lagata aurreratu lasai-lasai. Segundo batzuk gehi-

xago biharko ditzuzu akaso, baiña askoz ere trankillago ibilliko gera danok.

Errepidia danok harmoniaz eta errespertuz erabiltzeko aukeria daukagu, eta ez da hain zailla, borondate kontua da gehixen bat. Ikasi deigun daukaguna guztion artian banatzen.

Andoitz Agirregomezkorta ☺

### Itxialdia eta gose greba

Hilaren 11n hasitako itxialdia amaitutzat eman genuen 15ean. Salaketa astea egin dugu, 18tik 22ra honako aldarri zehatzekin:

Hilaren 18an, Jon Anza euskal borrokalari bahu zuten egun berean gertaera hura salatu dugu indar biziz. 21 urtetan EPPKko kide izan den burkidearekin zer egin duten jakin nahi dugu. Ardurak exijitzen jarraitzen dugu. Jakinarazten dugu aurrerantzean hileroko egun berean salaketa eguna izango dugula espetxe guztietan bere berri izan arte. Ohore zuri, Jon! Salaketa aste honetan, halaber, isolamenduan eta bakartasunean diren gure kideak beste kideekin jar ditzatela exijitu dugu. Ez dugu onartzerik gutako inor sakabanaturik, urrundurik eta bakarrik egotea. Borroka honetan direnei arnasa eta eskua luzatzen diegu, Roanneko espetxean urte hasieratik horretan ari den Lorentxa Gimonen kasua adierazgarri. Sakabanaketa hiltzaileak amaitu behar du.

Orain, hilaren 25ean Frantziako eta Espainiako espetxeetan gaituzten EPPKko kideok gose grebari ekin diegu. Gose greba ekintzarekin dagokigun Estatus Politikokoaren aldarrikapen eta errekonozimenduari indar berezia eman nahi diegu.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa ☺

# Barren

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldagi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Zuhaitz  
Gurrutxaga

Kaixo, Unai. Hamar urte bete dira hilabete honetan nik Realarekin debuta egin nuela. Futbolzale batek baino gehiagok oroitzen du Atletico Ma-

driren aurkako partidu hura, baina egun haietan bizi izan nituen sentimenduak agertu nahi nitzuke, niretzat hain garrantzitsua izan zen gertaerari omenaldia eginez. Urtarileko aste hartan, 19 urte nituela, nire egitasmoak asterokoak ziren: larunbatez Sanserekin jokatu eta arratsaldeko zazpitan koadrilarekin geratu, Elgoibarren poteoa egiteko. Ostiralean, aldiz, Javi Clementek lehen taldearekin jokatu nuela aipatu zidan. “No te acojonarás, no?”, leun batekin nerbioak dantzan jarri zizkidan. Hala, larunbatez, Madrileko hotel batean nengoen ordura arte nire idoloak zirenekin partidu bezperako otordua egiten.

### “Hamar urte dira Realarekin debuta egin nuela”

Futbolaria izateko ardoa edaten jakitea ezinbestekoa zela aitortu zidan garaiko jokalarri on batek, eta han hasi nintzen gogo txarrez ardo beltza dastatzen. Sinestezina izan arren, ardoak lagun ziurrenik, hamar ordu lo egin nituen gau hartan. Partidu eguna iritsi zen halako batean: 40.000 lagun txistuka, 7.000 erreboluziotara nire gorputza, beltz indartsu batekin sekulako ika-mikak, txartel gorri bat, eta denboraz aurretik bakar-bakarrik aldagelan negar malkotan. Hurrengo egunean, Javi Clemente gerturatu zitzaidan, ni burumakur, lotsatuta, agertu natzaion... “Tranquilo, chaval, ahora a firmar un buen contrato”, esan zidan zigarrokina eskuan zuela. Hamar urte ordutik, zenbat kontu eta komeria. Izango duzu, Unai, eskubaloiko anekdotarik jendeak irakurri nahi lukeenik.



Unai  
Arrieta

Badatorkit gogora, Zuhaitz, nire kirol-ibiliaren hasieretako pasartetxo bat. Gaztetxoak ginela, Ikastola garaian kurtsokoen artean bagenuen eskubaloiarako halako joera bat. Ongi oroitzen ditut eskubaloi arauz eta jokatzeko moduez arbelean kantxa bat marraztua zuela garai hartan izan genuen maisu batengandik entzun nituen lehenengo azalpenak. Gelakide baten osaba eskubaloi zale amorratua zen, orduko Arrateren eta bere loraldirik gozoenean aurkitzen zen Bidasoaren jarraitzaile sutsua. Hark gonbidatuta, behinola Irungo Artalekun izan nintzen Bidasoaren partida bat ikusten. Ez zen nolanhiko partida izan, Bidasoak Bartzelona izan zuen aurkari, liga zuten jokoan. Hango jende uholdea, hango giroa eta berotasuna, partida harmailletako eskailera-hertz batean jarrita bizi izan genuen. Jokuaren azkarra, kontaktu, jauzi eta kontraeraso biziak, atezainen geldiketa akrobatikoak. Dena gaur izan balitz bezala oroitzen dut, txalo eta oihiak, hango buru-bihotzen eferbeszentzia. Norgehiagoka estu baten ostean Bidaso txapeldun.

### “Behinola Irungo Artalekun izan nintzen Bidaso ikusten”

Nola azaldu histeria kolektibo hark nigan eragin zuena? Etxera iritsi nintzenean, oraindik neure onera etorri gabe nengoen, kantxa barruan ibili izan banintz bezala. Egund oraindik amak behin baino gehiagotan gogorarazten dit topaketa hark sortu zidan miresmena.

Lau urte geroago, berriz ere Artalekun topatu nuen nire burua, oraingoan kantxan, ordea, Bidasoaren elastiko hori-urdina jantzita, orduko hartan jokatzen ikusi nituenen artean.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





**Zerabidea aldatu beharko lukete Ermuaranbide kalean:** “Kexa baino gehiago, proposamena da hau. Ermuaranbide kalean, trenbide azpiko zerabidea kendu egin beharko lukete, aurrerago jartzeko, goraxeago. Hartara, ikastolara joateko zerabide bat gutxiago pasatuko lukete umeeak. Goizero ikastola inguruko zerabideak zaintzen Udaltzain bi egon beharrea, bakarra geratuko litzateke, eta bestea herriko edozein sarrera zaintzen geratu liteke, premia handia dago-eta”.



**IMHko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete Carmelo Urdangarinen hitzaldian parte hartu zutenei:**

“Eskerrik asko erremintamakinaren bilakaerari buruzko hitzaldira etorri zineten guztioi. Bide batez, jubilatua animatu nahi ditugu museora etortzeko: makinaren lekukotasuna ikusteaz gain, euren bizipenak jaso ahal izateko”.



**Txalo handi bat Gurutze Gorriko langileei, Mugertza krosean egindako lanagatik:** “Hotza, euria eta lokatza izan ziren protagonista nagusiak Mugertza krosean, eta korrikalariak eguraldiaren ondorio latzak jasan behar izan zituzten. Gurutze Gorrikoek lan handia eduki zuten, eta oso ondo zaindu zituzten atletak. Segi horrela!”



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12

ESKERTZA



**FRANCISCO ANSOLA AGUIRREGOMEZCORTA**

2010ko urtarrilaren 19an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







# AFRIKARRAK NAGUSI

Lerun zaharreko krosaren antza hartu du aurten Mugertza Krosak: euria, hotza, behe lainoa eta, batez ere, lokatza. Baldintza gogor horietan, Afrikako korrikalariak izan ziren nagusi. Ez zen sorpresa handirik egon podiumean, eta aurreikuspen guztiak bete zituen Leonard Komon keniarrak gizonezkoen kategorian. Emakumezkoetan, ordea, Goshu etiopiarrek ezustekoa eman zuen, eta Karandy keniarrari irabazi zion. Sailkapenak eta argazki gehiago ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net). (Argazkiak BARREN eta Jairo Berbel)

Komon, Kipyego eta Macharinyan keniarrak podiumean.



Elgoibartarrek ez zuten hutsik egin domekan, eta hotza egin arren, Mintxetako berdegunea jendez beteta egon zen. 3.500 lagun inguru bildu ziren, atletismoaren urteko ikuskizunik garrantzitsuena bertatik bertara ikusteko. Munduko atxintxikolari handiekin batera, Mintxeta atletismo taldeko kideek ere hartu zuten parte, eta horietako batzuk, gainera, euren kategorian irabaztea lortu zuten: Nesken albin mailak loar Urkiri izan zen irabazle, eta mutilen kadete mailan Iñaki Sagarna.

Neskak, pista bustiaren gainean.



Soarte argazkilaria, Javier Carriqueo korrikalari argentinararekin. Iaz argazkia atera zion elgoibartarrak korrikalariari, eta, ondoren, bidali egin zion. Aurten korrikalaria jarri da argazkiliarekin harremanetan, eskerrak emateko.



Zangoak zaurituta bukatu zuten hainbat korrikalarik.







Leonard Komon, helmugan. 33:44ko denbora egin zuen keniararak.



Frehiwat Goshu etiopiarra izan zen emakumeetan garaile, 22:37 denborarekin.



Ahaleginaren ondorioak jas



Ibilbideko aldapak ere gogor gainditu zituzten.



Bi atxintxikari, pistako uretan islatuta.



Lokatza egon arren, zangoak arin astindu zituzten korrikalariek.






an zituen korrikalari horrek.



Komonen zangoak, erabat lokaztuta.



Eskumakoa, Mikel Anakabe elgoibartarra.



Komon,  
lasterketaren  
ostean  
adierazpenak  
egiten.



Mauxitxa txarangak girotu zuen atletismoaren jaia.



ra Santiago  
oibartarra.



Zapatuan  
egin zieten  
korrikalari  
ongietorria,  
eta umek  
sinadurak  
eskatzeko  
aprobetxatu  
zuten.



## Ibilgailu elektrikoen oraina eta geroa aztertu dituzte Meka ikastetxearen jardunaldietan

Lehenengo auto elektrikoa orain dela ehun urte merkaturatu zen

**A**uto elektrikoen inguruko hitzaldia eskaini zuen martitzenean Granollerseko Grau enpresako Jose Arcek, Mekan, Lanbide Heziketako ikastetxeak eta Arrizabal enpresak elkarlanean antolatutako jardunaldien barruan. Auto elektrikoen gaur egungo egoeraz, eta haien ezaugarriez eta mugez jardun zuek Arcek, 50 bat lagunen aurrean.

Ehun urte badira lehen auto elektrikoa merkaturatu zutela, baina ordutik horren gutxi aurreratu izanaren arrazoiak eta epe motzean sor daitezkeen arazo eta inbertsio bide berriak azaldu zituen Arcek. Hitzaldiaren ostean, automozio eta galdaragintzako tailerrak eta auto elektrikoen erakusketa bisitatu zituzten hitzaldian egon zirenek, Mariasun Larrañaga Mekako zuzendaria gidari zutela.



## Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa Kimetz elkartearen jokatu da otsailaren 6an

**E**uskal Herriko mus txapelketan parte hartu nahi dutenek otsailaren 5era arte daukate izena emateko epea. Elgoibarko kanporaketa otsailaren 6an, zapatuan, jokatu da Kimetz elkartearen, 16:30ean. Interesatuak Jai Alai tabernan edo bestela 635 730 920 telefonora deituta eman dezakete izena. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Gipuzkoako kanporaketa otsailaren 13an eta 14an jokatu dute, eta finala maiatzaren 14an izango da. Bikote irabazleak garaikurra, 3.000 euro eta 4 lagunentzako nazioarteko bidaia irabaziko ditu, eta ondorengo hiru bikoteentzako ere sari handiak egongo dira. Gainerakoek sari txikiak izango dituzte.

## Apirilera arteko etena izango du Gurean-Bai merkataritza egitasmoak



Udalak eta Elgoibarko Izarrak elkarlanean bideratzen duten Gurean Bai-Merkataritza eta Ostalaritza egitasmoak etena izango du datorren apirilera arte. Egitasmoa berriro hasi artean, Elgoibarko Udalak, ahal duen neurrian, herriko merkataritza eta ostalariek euskara arloan duten beharrei erantzuteko ahalegina egingo du. Dagoeneko, Elgoibarko dendetan euskararen erabilera bultzatzearen, merkealdietarako kartelak kaleratu dituzte. Material hori eskuratu nahi duten merkatariek Euskara Sailaren bulegora jo beharko dute. Bestalde, harremanak errazteko, honako helbide elektroniko hau erabiltzeko gomendioa egin nahi die merkataritza eta ostalariei: [euskara@elgoibar.org](mailto:euskara@elgoibar.org).



## Izena **Arnaldo Otegi**



Arnaldo Otegi Auzitegi Nazionalako eserlekuan eseri da berriro ere aste honetan. 2005ean Jose Maria Sagardui *Gatza* presoaren omenaldian aske lagatzeko eskatzeagatik terrorismoa go-raipatzea leporatu diote. Arnaldo Otegiarentzat 18 hilabeteko kartzela-zigorra eskatu du fiskalak. Ermuko Foroak eta Diginidad y Justicia elkarteek lau urte eta erdiko eta bost urteko espetxe-zigorra eskatu dituzte, hurrenez hurren.

## Zenbakia **622**

INEMek emandako azken datuen arabera, 2009ko abenduan 622 langabetu zeuden Elgoibarren. Azken bi urteotan, beraz, %118 hazi da Elgoibarko langabezia tasa. 2007an 285 lagun lanik gabe gure herrian, eta 2008an 428.

## Irudia **Protestak**

Egoera zaila bizi dute CME enpresako langileek. Lanean jardun dute gaur arte, baina enpresak zortzi nomina zor dizkie: abuztutik orain arteko guztiak, udako eta gabonetako pagak barne. Egoera horri jasangaitza iritzita, langileek protestak hasi dituzte. Astero, elkarretaratzea egiten dute Bilbon, eta bihar Elgoibarren egingo dute, 12:00etan udaletxe aurrean. Elgoibarko enpresa da berez CME (Construcciones Mecánicas de Elgoibar), baina gaur egun Itziarren dago.



## **Lourdesera irteera**

Datorren otsailaren 11n Lourdeseko Ama Birjinaren eguna izango dela-eta, irteera antolatu dute. 6:15ean irtengo da autobusa Sig-mako geltokitik. Irteeraren prezioa 37 eurokoa da, bazkaria barne. Interesatuak 943 740 822 telefonoan eman dezakete izena.

## **Misio Taldeak Haitiko umei laguntzeko eskaera egin du**

Haitiko lurrikarak eragindako kalteak direla-eta, Parrokiako Misio Taldeak laguntza eskatu du. Janaria edo dirua eman daiteke. Kontserbak, pasta, azukrea, arroza, lentejak, garbantzuak eta olioak jasoko dituzte. Janari horiek Bidezko Merkataritzaren dendan laga daitezke otsailaren 4tik 6ra bitartean (Merkatu Plazan). Elgoibarko Misio Taldeak hamabi ume ditu babestuta Port au Prince hiriburuan.

## **'Sexualitatea eta emakumea' ikastaroa hasiko da**

Haizeak antolatuta, sexualitateari eta emakumeari buruzko ikastaroa hasiko da otsailaren 2an. Sei saio izango dira guztira, martitzenetan, 18:30ean Kultur Etxean. Arantza Alvarez psikologoa eta sexologoa izango da hizlaria, eta besteak beste, bikote harremanak, sexu-osasuna eta emakumearen erotismoa landuko dituzte. Interesatuak Pitxintxu dendan eman dezakete izena.

## **'Gure denda, gure poza' kanpainako zozketa**

*Gure denda, gure poza* kanpainako arduradunek jakinarazi dute azaroko saria bertan behera geratu dela, ez delako irabazlerik agertu. Abenduko saria jasotzeko epea, bestalde, amaitu da, eta lehenengo sariduna agertu ez denez, ordezkoko zenbakia (19968) duen pertsonak eskuratu ahal izango du 100 euroko erosketa txekoa. Otsailaren 25era arteko epea dauka saria jasotzeko.

Datorren eguaztenean, otsailaren 3an, San Blas Eguna ospatuko da.

## Badaukazue San Blas opilak egiteko ohiturarik?



**Paqui Barreiros**  
56 urte, laguntzailea

Ez, ez zait komeni eta ez dut egiten. Hala ere, San Blas Eguna gerturatzen denean opilen bat erosten dut, probatzeko bada ere. Bestalde, denbora izaten dudanean lokarria bedeinkatzera joaten naiz. Bestela, ingurukoren batek ematen dit beti.



**Anselmo Vargas**  
74 urte, jubilatua

Ez. Lehen emazteak egiten zuen, baina orain erosi egiten dugu. Etxekoa askoz hobea da! Osagaiak norberak erosten ditu, eta hobea izaten da opila. Kandelak eta lokarria bedeinkatzeko ohiturarik ez daukagu. Ez gara asko joaten elizara.



**Domingo Acuña**  
76 urte, jubilatua

Ez. Jehovaharen Testigoa naiz, eta ez dut San Blas eguna ospatzen. Nire seme-alabek, baina, badaukate opila erosteko eta jateko ohitura. Ni ere gozozalea naiz, eta San Blas opila gustatzen zait, baina urteko edozein egunetan jaten dut. Bibliak esaten duen guztia egiten dut.



**Mari Karmen Elortza**  
69 urte, etxeandrea

Lehen, sasoi batean asko, baina orain lagata nago. Baserriko esnea hartzen genuen, eta hark gain ederra edukitzen zuen. Orain, kolesterola dela-eta, kaxakoa hartzen dugu, desnatatua, eta ez dut opilik egiten. Hala ere, noizean behin dendan erosten dut.

**GIDA KOMERTZIALA**  
**2009-2010**

Gida komertziala prestatzen ari gara,  
zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)**




# TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

**BISITATU GURE ERAKUSKETA,  
HARRITUKO ZAITUGU.  
LAGUNAK GURE DENDAK  
BERRIZTATZEN JARRAITZEN DU.  
Armairuak, arropategia, armairu-barrua...**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**JARRI ERRETRATUA  
BARRENEKO AZALARI!**

**INAUTERIEKAKO AZALA  
HERRITARREN ESKU  
LAGAKO DUGU**

OTSAILAREN 12KO ALEA EGITEKO,  
INAUTERIEKAKO ARGAZKIAK  
BEHAR DITUGU. JASOTZEN  
DITUGUN ERRETRATU  
GUZTIEN ARTEAN AUKERATUKO  
DUGU **BARRENEKO** AZALA.

**HERRITAR BAKOITZAK HIRU  
ARGAZKI BIDALI DITZAKE,  
GEHIENEZ. ARGAZKIAK  
BIDALTZEKO AZKEN EGUNA:  
OTSAILAK 5.**

Informazio gehiago: 943 744 112 (Ainhoa)  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



## Ione Urain

Ione Urain mendarorak zeramikari lotuta egin ditu azken 25 urteak. Debako Arte Eskolan sortu zitzaion harra, eta, gaur egun, ordu asko ematen ditu Ezkio-Itsason duen tailerrean, buztina lantzen. Maite Salutregi zeramikagile eibartarrarekin batera sortu zuen Keramika Pott tailerra, 1992. urtean ([www.pottartea.com](http://www.pottartea.com)). Tailerra bisitatu nahi duenak 943 161 965 telefonora deitzea besterik ez du, eguna eta ordua hartzeko.

Ainara Argoitia



## “Ontzigintzari lotuegi dago zeramika, eta zaila zaigu alde artistikoa ezagutaraztea”

**Noiz, eta zerk bultzatuta hasi zinen zeramikagintzan?**

Institutua bukatu eta Debako arte eskolan eman nuen izena, 1986an. Hiru urtean jarduera bat baino gehiago landu nituen han, baina laster jabetu nintzen zeramikak erakartzen ninduela gehien. Handik Manisesera (Valentzia) joan nintzen, Maite Salutregirekin batera. Han beste hiru urte egin nituen. Debako eskolan dena eskuarekin egiten genuen, baina Valentziakoan denetik ikasi beharra zegoen: matematika, fisika... Valentziatik bueltan, labea eta tailer baterako bigarren

eskuko materiala erosteko aukera izan genuen, eta, uda hartan, Ezkio-Itsason lokal bat utzi zigun Udalak, urtean bi ikastaro ematearen truke. Orain, geure tailerra daukagu, baina guztira hamasei urte badira Itsason jarri ginenetik.

**Arte plastikoaren artean zeramika gubxietsita dagoela entzun izan diegu artista askori. Zer diozu zuk? Zer da zuretzat zeramika?**

Bai, nik uste ontzigintzari edo eltzegintzari lotuegi egon dela. Etorri ere, ontzigintzatik dator, baina gaur egun zeramikarekin gauza asko eta izugarri gauza politak egin daitezke,

baina mundu hori ezezaguna da oraindik. Arte plastikoaren artean, zeramikarena prozesu luzea ere bada, eta gaur egun prozesu motzagoko jarduerak, bat-batekotasun handiagokoek estimazio handiagoa dute, argazkigintzak esaterako. Euskal Herrian heltzegintzari lotuegi dago zeramika, eta zeramika artistikoa ezagutaraztea oso zaila egiten ari zaigu. Oso jende ona dago, baina kostatzen da haien lanak plazaratzea.

**Bilduta ez al dago indar handiagoa egiterik?** Bai, eta bildu gara. Euskal Keramikagile Garaiakideak elkarrearen barruan gaude. Artista



gehienak arabarrak dira, Gasteizkoak, baina Bizkaiko batzuk ere badira. Gure lanak plazaratzeko eta estatuko beste leku batzuetako artistak ekartzeko eta haiek zertan ari diren ikusteko bidea ematen digu elkarteak.

**Maite Salutregi elbartarrekin batera ari zara tailerrean. Bi artista elkarrekin. Artistak bakarrik ibili zaleak zirela uste genuen.**

Ibilbide oso bat egin dugu elkarrekin. Ikasten ezagutu genuen elkar, elkarrekin bizi izan gara, tailerra ere batera sortu genuen, biok emakumeak gara, ama ere ia aldi berean izan ginen... Elkarrengandik oso gertu gaude, eta ondo ulertzen diogu elkarri.

**Bakarka edo biok batera aritzen zarete sormen lanean?**

Maitek eta nik norbere bidea jarraitzen dugu, nork bere nortasuna dugulako. Hala, bezeroa etortzen zaigunean, bi tendentzia eskaintzen dizkiogu. Gaia jartzen digu bezeroak, eta gure lana da gai edo ideia hori lantzea. Bati sortuko zaio idea bat, eta besteari beste bat, eta denak batuz osatzen dugu artelana. Izan daiteke obra bat, edo izan daitezke gehiago ere. Gero berak erabakitzen du zein nahi duen. Era berean, enkarguz kanpoko lanak ere egiten ditugu, garaikur eskultorikoak, adibidez.

**Zertan inspiratzen zarete?**

Zuk inspirazioa deitzen duzun hori nik uste gehiago dela lan luze bat. Hasten zara zerbaitekin, eta hari horri tiraka-tiraka, iristen da azken lana. Hasi zaitezke marrazki batekin,

eta gero buztinean jarraitu pieza txikiak egiten. Abiapuntu bat hori izan daiteke, baina modu asko daude, buruan bueltaka darabilzun idea hori ateratzeko. Natura bera ere inspirazio iturri hona da. Ezkio-ltsason daukagu tailerra, leku bakarti eta pribilegiatu batean, naturatik oso gertu.

## “Sormena lantzen dugu, baina egiten dugunari irtenbidea ateratzea ere gure lana da. Lan astuna”

**Badago gaur egun zeramikaz bizitzerik?**

Bidea bilatu behar da, gustuko duzun horetatik bizitzeko. Sormena lantzen dugu guk, eta hori da gure lana. Baina egiten duzun horri aterabidea bilatzea ere gure lanaren parte da. Lan zatarra eta astuna, baina egin beharrekoa. Polita litzateke tailerrean jardun eta gero galeria bat edo beste norbait izatea, obra horiek saltzeko, baina gu ez gara maila horretara iritsi oraindik. Gure bezero asko instituzioak dira. Gero, tailerretik kanpo ere lan egin beharra dago. Eskolak ematen hasi gara berriro. Hala hasi ginen, baina urteetan baztertuta izan dugu hori, tailerrean lan karga

handia geneukalako, baina bueltatu gara horra ere.

**Badaukazue orain zer bait eskuartean?.**


Bakoitzak bere lana segitzen du. Zurrunkiak du izena nire azken lana. Pertsonak irudikatu nahi izan ditut, arbolen irudien birtartez metafora bat sortuz. Hala ere, ari gara bion artean ere proiektu bat lantzen, ilusio handiarekin gainera. Orain arteko erakusketa guztiak bion artean antolatu ditugu, lan handia eskatzen duelako, eta, gainera, zer erakutsi asko eduki behar delako. Orain, kanporako lan asko egiten ditugu, eta beharbada horiek dira ikusgarrienak.

**Zertan inspiratzen zarete?**

Zumarragan eta Beasainen talde batzuk baditugu, eta emaitza onak ematen ari dira. Zumarragan erakusketa bat jarri berri dugu, ikasleen lanekin, eta maila handiko lanak daude. Ez dira horrenbeste zeramika ontziak. Gehiago dira eskulturak eta prozesu luzeagoko lanak, eta oso gustura gaude.

**Hasi zinenetik zertan egin da aurrera zeramikagintzan?**

Gu hasi ginenean egon zen halako *boom* antzeko bat. Orduan, Kultur Etxe guztietan zegoen labe bat, zeramika lantzeko. Gero jaitsiera nabarmen bat egon zen, eta nik uste orain beste susperraldi bat egon dela. Gure inguruan behintzat badira talde batzuk. Jendea denborapasa jotzen da eskolara, baina oso pieza ederrak egiten dituzte.



# CARMEN AGIRRE DELCLAUX

Arte eta Historia katedraduna

**Haizea emakume taldeak antolatuta, Michelangeloren Kapera Sixtinoari buruzko tailerra eskaini du Carmen Agirre Delclaux zarautzarrak aste honetan. Hilabetean behin etortzen da, eta arteari buruz dituen ezagutzak zabaltzen ditu saioetara joaten diren herritarren artean. Arte eta Historia katedraduna da, eta haserre dago Batxilergoan Artearen Historia ikasgaia kendu dutelako.**

**“Arte museo garrantzitsuak dira gaur egun elizak”**



## **Zein motatako jendea joaten da zure arte tailerrera?**

Jende nagusia etortzen da gehienbat. Etxekoandereak, jubilatua, eta zenbait gizonezko ere bai. Elgoibarren, emakumeak bakarrik dauzkate, baina eskolak Zarautzen ere ematen ditut, eta hara gizonezko asko etortzen dira. Normalean arteaz asko ez dakien jendea izaten da, eta, aldi berean, etxean egon nahi ez duena da. Horrelako ekimenetan irteerak antolatzen dituzte, bazkariak edota bidaiak, eta erlacionatzeko modu bat ere bada. Arteaz gehiago dakitenak ere badaude, baina ez da beharrezkoa. Edonor etorri daiteke horrelako saioetara.

## **Zeri buruzko tailerrak eskaintzen dituzu?**

laz Elgoibarko eta inguruko herrietako arkitektura eraikinei buruzko saioak eman nituen, eta orain Michelangeloren Kapera Sixtinoari buruzko ikastaroa eskaintzen ari naiz. Nire ustez, artearen erakusgarri gorenak da Kapera Sixtinoa. XVI. mendekoa da, barrokoa. Michelangelok margotu zuen bobeda nagusia, eta Errenazimendu garaiko beste hamabi margolari garrantzitsuren margoak ere ikusi daitetzke bertan. Kapera Sixtinoari buruzko xehetasunak erakusten dizkiet ikasleei, eta garai historikoan ere kokatzen ditut.

## **Elgoibarko elizari buruz, zer esan zenezake?**

lazko ikasturtean landu genuen lehen eraikina izan zen. Elgoibarko eliza Olason zegoen lehenengo. XV. mendekoa zen eliza hura, baina oso egoera txarrean zegoenez, lekuz aldatzeko eskatu zuten, herriko lautadara ekartzeko, alegia. Leku aldaketa XVIII. mendean egin zen. Historiaren Akademia Errealaren buletinaren eskutitz interesgarri bat aurkitu nuen; Jose Vargasek Agustin Cea Bermudezi bidalitakoa. Ez du zehazten bakoitzaren kargua, baina badirudi Var-

gas arte aditua zela, eta hemen inguruko eraikinen azterketa egiten ari zela. Elgoibarko eliza eraikitzen ari ziren garaikoa da eskutitza, eta gizon horrek sekulako komentario onak egiten ditu obrari buruz. Ibero arkitektoen lana kritikatzeko, batez ere. Ibero aita-emeak arkitekto garrantzitsuak izan ziren, eta Gipuzkoako-arkitektura eraikin askotan egin zuten lan, besteak beste, Loiolako basilikan. Elgoibarko elizako dorrea eurak eginikoa da.

## **Zein estilotakoa da?**

Estilo Neoklasikokoa da. Iberotarrek eginiko dorrea, baina, barrokoa da; aurreko garaikoa. Neoklasikoa linea zuzenetan oinarritzen da, eta barrokoak gehiago erabiltzen ditu arkuak, eta askoz elementu gehiago erabiltzen ditu dekoratzeko. Aldarea ere Iberotarrek eginikoa da. Elgoibarko elizan arkitekto oso onak ibili ziren.

## **Garai hartan, nola moldatzen ziren horrelako eraikinak egiteko?**

XVII. eta XVIII. mendeetan gurpilak bazeuzkaten, garabiak bazeuden eta nahiko tresna onak zituzten. Egiptoko piramideak edota Greziako eraikinak nola egin zituzten jakitea da benetako misterioa! Kontuan izan behar da garai hartako labe garaiak zirela katedralak. Herriko jende gehienak katedralak eraikitzen egiten zuten lan. Garai batean otoi ez egiteko erabiltzen ziren, baina gaur egun museo garrantzitsuak dira, eta diru-iturri handia. Gaur egungo gizarteari bidaiatzea gustatzen zaio, eta turismoa artearekin lotuta dago. Niri pena ematen dit gauza batek: jendeak ilara luzeak itxaroten dituzte museoak edo elizak ikusteko, baina arteaz oso gutxi daki. Batxilergoan Artearen Historia ikasgaia kendu egin dute, eta seguru nago arteaz apur bat gehiago jakingo balute, askoz gehiago gozatuko luketeela.



# Pirritx eta Porrotx ikusteko azken sarrerak kiroldegan salduko dituzte

Domekako bi saioetarako leku gutxi batzuk gelditzen dira

**P**irritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Irien lagunak* izeneko ikuskizuna eskainiko dute etzi, Elgoibar-ko Udalaren Gazteria Batzordeak antolatuta. Ikuskizuna Olaizaga kiroldegan izango da, eta ohikoa den bezala, aurten ere, bi saio izango dira. Lehendabiziko saioa 16:00etan ihasiko da, eta bigarrena, berriz, 18:30etan.

Azken urteotan bezala, aurten ere ikusmin handia sortu dute pailazoez Elgoibarren. Joan zen astean bi egun jarri zituzten sarrerak saltzeko, eta bietan ilara handiak sortu ziren Herriko Antzoki atarian. Ilarak San Lazaro egoitzaraino iritsi ziren. Hala



ere, antolatzailleek jakinarazi dute sarrera gutxi batzuk gelditzen direla oraindik, eta horiek etzi jarriko dituztela salgai, ikuskizuna izango den egun berean. Kiroldegan salduko dituzte, 15:30etik aurrera.

## Santa Ageda bezperan, baserriz baserri ibiliko dira koplariak, eta zapatuan irtengo dira kalean



Badator Santa Ageda eguna, badator koplakantari aritzeko eguna. Elgoibarko Izarrak egindako deiari erantzunez, zenbait herritar irtengo dira kantura, eguenean, Santa Ageda bezperan. 14:30etan irtengo dira Plaza Handitik, eta bi taldetan banatuta, 21:00ak aldera arte jardungo dute kantuan, baserriz baserri. Etxeginakoak, berriz, hilaren 6an, irtengo dira. Bolatokian bilduko dira 09:30ean, eta kalez kale arituko dira. Batzen dutena Caritasentzako izango da. Entseguak martitzenean eta eguenean egingo dituzte. 20:30etan, Kultur Etxeko ganbaran,

### Mendaron, zapatuan

Mendaron ere irtengo dira koplakantari. Urtero legez, hiru talde osatuko dituzte, eta baserriz baserri ibiliko dira kantuan. 45 bat lagun elkartuko dira, eta hiru talde osatuko dituzte. 8:30ean batuko dira udaletxeko plazan guztiak, eta handik Aranerrekarantz abiatuko dira batzuk, Mendarozabal alderuntz beste batzuk, eta Sahatsu mendirantz hirugarren taldekoak. Ondoren, Aizpe gastronomia elkartean bazkalduko dute. Biltzen duten dirua Arno guraso elkartearentzako eta Santa Ana ermitarako bidea konpontzeko izango da.

### Inauterietako BARRENen azala herritarren esku

BARREN astekariak otsailaren 12ko aleko azala egiteko aukera eskainiko die irakurleei. Herritar bakoitzak inauterietako hiru argazki bidali ahal izango ditu gehienez, otsailaren 5a aurretik, eta guztien artean aukeratuko du BARRENeko lantaldeak zeini eman azala. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 744 112 zenbakira.

### AEK-k hirugarren maila konbinatua eskainiko du

Euskara ikasi nahi dutenek gero eta denbora gutxiago dute, eta gero eta ordutegi sakabanatuagoak. Horren jakitun, ikaskuntza eredu berritzailea jarri du martxan AEK-k. Aurrez aurreko saioak eta *on-line* bidezkoak uztartuko dituzte, taldeko lana eta autoikaskuntza batzen dituztelako. Dagoeneko martxan dute 3. mailako eskaintza. Azterketa eskuratzeko 120 orduko ikastaroa izango da, astelehenean hasi eta ekainaren 18an bukatuko dena. Informazio gehiago nahi izanez gero, [e-gela@aek.org](mailto:e-gela@aek.org) helbide elektronikora idatzi, edo deitu Elgoibarko AEK euskaltegira (943 741 332).

### Elgoibartarrak, Lezoko soinu zahar txapelketan

Zapatuan jokatu zen Lezoko soinu zahar txapelketa, eta Elgoibarko zazpi dantzarik parte hartu zuten. A sailekoen artean (7-11 urte), 19 neska lehiatu ziren, tartean bi elgoibartar: Leire Morales eta Saioa Marcos. 8. eta 15. sailkatu ziren, hurrenez hurren. B sailekoetan (11-15 urte) 21 neska parte hartu zuten, tartean bost elgoibartarrek: Arantxa Ferreiro (2. postua), Goizeder Etxeberria (9.), Andrea Arregi (14.), Leire Astigarraga: (16.) eta Naia Makazaga (18.). Elgoibarren, martxoaren 13an eta 14an izango da dantzarri gazte horiek ikusteko aukera.

## Hamalau elgoibartarrek hartuko dute parte Altitoy eski proba ezagunean

Frantziako Pirinioetan jokatu da asteburuan



*lazko parte hartzaileak eta beste zenbait elgoibartar.*

**H**amalau elgoibartar izango dira asteburu honetan mendi eskiko Altitoy proba ezagunean. Frantziako Pirinioetan jokatu dute, Luz Sain't Sauveur inguruan, eta bi eguneko lasterketa izango da. Bikoteka egiteko proba izango da, eta, besteak beste, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da. Elurra egoera onean dago, eta, eguraldi iragarpenak ere onak dira astebururako. Beraz, Elgoibarko parte hartzaileek ibilbide ikusgarri bezain gozagarriak aurkituko dituzten itxaropena dute. Partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeratzeko, bata lehiakorragoa izango da, eta bestea herrikoia.

### Sagardotegira irteera Morkaikorekin

Morkaiko mendizale elkarteak mendia eta sagardotegia uzartuko ditu, otsailaren 6an egingo duen irteeran. 8:00etan hartuko dute autobusa Elgoibarren, eta Andoinerantz abiatuko dira. Plazaolako geltoki zaharretik irtingo dira oinez, eta bide berdeari jarraituz, 20 kilometroko ibilaldia egingo dute, Andoaindik Le-kunberrira zihoan trenbide zaharretik. Hiru ordu eta erdiko iraupena izango du ibilaldiak, eta ibilbidea erraza dela aurreratu dute antolatzaileek.

Kirol apur bat egin ondoren, Astigarragako Rezola sagardotegian egingo dute bazkaria. Itzulera gaueko 22:00ak aldera egingo dute.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 40. Plazak mugatuak dira. Beraz, lehenbailehen apuntatzea komeni da, otsailaren 1a (astelehena) izango da azken eguna. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak 943 740 297 telefonora deituzazake.

## Olaizaga kiroldegiko rokodromoan 5 eta 8A+ ibilbideak prestatu dituzte



Olaizaga kiroldegiko rokodromoan 5 eta 8A+ ibilbideak prestatu dituzte. Josu Merino eskalatazaile elgoibartarraren eta Ion Lazkoz nafarraren laguntza izan dute ibilbide berri horiek prestatzeko. Biak eskalatazaile handiak dira, eta Lazkozek hainbat txapelketetan prestatzaile lanak egin izan ditu. Gabonetako oporraldia aprobetxatu dute Kirol Patronatuko arduradunek rokodromoan hainbat berrikuntza egiteko, eta, dagoeneko, erabiltzeko moduan daude. Interesatuak kiroldegiko harreran eskatu dezakete ibilbide horiei buruzko informazioa. Udal Kirol Patronatuko arduradunek gogorarazi nahi izan dute kiroldegiko bazkideek rokodromoa doan erabili dezaketela.



# Elgoibartarrak esku hutsik gelditu ziren San Anton txapelketako final bietan

Ikastolako frontoian ikusle asko bildu ziren



Parte hartzaile guztiak, Lagunak taldeko arduradunak eta Udal agintariak.

**T**xapela eskuratzeko bi aukera izan arren, Arribillagak eta Loiolak, bakoitzak bere mailan, ezin izan zuten euren izena San Anton pilota txapelketako irabazleen zerrendan sartu. Hotz egiten zuen ikastolako frontoian, baina jende asko bildu zen bertan, eta giroa bero-bero egon zen amaierara arte.

Nagusien mailan, Eneko Loiolak laugarren aldiz jokatu zuen San Anton txapelketako finala, eta, berriz ere, txapelak ihes egin zion. Aiasia-San Migel auzoko atzelariak, Uriarte izan zuan bikotekide, baina Atxotegi eta Jauregi gehiago izan ziren. 22-12 izan zen azken emaitza, eta berriz ere, elgoibartarra esku hutsik geratu zen. Jokalari onenaren saria ere Jauregi atzelariak jaso zuen.

## Promesetan nahiko berdinduta

Haritz Arribillaga elgoibartarrak promesen mailako finala jokatu zuen. Erreka zeukan bikotekide atzeko koadroetan. Partida parekatua izan zen, eta markagailua nahiko berdinduta egon zen amaierara arte. Azken tantoetan aurrea hartu zieten Ezkurdia eta Bolinagak. 22-18 izan zen azken emaitza.



Laugarrengoan ere ezin izan zuen txapela jantzi Loiolak



Arribillaga, aurreko koadroetan pilotari gogor emanez.

## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Bankoa Elg. 20 – Udarregi 22 (Inf. mut.)  
 IMH Elg. 30 – Aloña Mendi 26 (Kad. neska)  
 Grupo Eibar Elg. 32 – Aloña Mendi 19 (Jub. neska)  
 Lauko Elg. 18 – Ayala Zarautz 25 (Kad. neska)  
 Tecnifuelle Elg. 21 – IES 22 (Sen. neska)  
 Euskalduna 44 – Pneumax Elg. 43 (Jub. mut.)  
 Alcorta Elg. 30 – Haritza Eibar 30 (Sen. mut.)  
 Ibaiondo Elg. 4 – Legazpi 25 (Inf. neska)  
 Pulpo 4 – Ikus Elg. 41 (Inf. neska)  
 Pakita Altzariak 17 – Astigarraga Elg. 17 (Inf. neska)

### ESKU PILOTA

#### San Anton Txapelketa

Ezkurdia-Bolinaga 22 / Arribillaga-Erreka 18 (Prom.)  
 Atxotegi-Jauregi 22 / Uriarte-Loiola 12 (Nag.)

#### Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 / Aretxabaleta 15 (1. mailako nag.)  
 Hernani 22 / Lagunak 17 (1. mailako nag.)  
 Eskoriatza 22 / Lagunak 3 (2. mailako nag.)  
 Murumendi 15 / Lagunak 22 (2. mailako nag.)  
 Lagunak 22 / Intxurre 8 (1. mailako kad.)

#### Pala

Lagunak 13 / Real Sociedad 25 (1. mailako nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 30

10:30 Elgoibar – Añorga (Inf. txiki.)  
 12:30 Elgoibar – Euskalduna (Ohorezko Jub.)  
 16:30 Haundi – Laudio (3. maila)  
 18:45 Elgoibar – Zumaia (Pref.)  
 Domeka, 31  
 16:30 Elgoibar – Soraluze (Kad. B)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 30

9:30 Astigarraga Elg. – Ibaiondo (Inf. neska)  
 10:45 Ikus Elg. – Pakita altzariak (Inf. neska)  
 12:00 Txariduna Elg. – Amenabar A (Inf. mut.)

### PILOTA (Ikastolan)

#### Barbakua, 29

21:15 Lagunak – Gazteleku (3. mailako nag.)  
 22:00 Lagunak (2) – Arrasate (1. mailako nag.)  
 23:00 Lagunak – Usurbil (Pala, 2. mailako nag.)

## IDARRAGA SARIAK

1. Guinea..... 40 puntu.
2. Larrea..... 33 puntu.
3. Iker Arrilaga ..... 26 puntu.
4. Gabilondo ..... 23 puntu.

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea, adin nagusikoak zein haurrak zaintzeko prest. ☎ **618 377 283**
- Neska euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsalde, jai egunetan eta astebukaeretan. Klinika kaguntzaile titulua du. ☎ **943 748 209**
- Gizona, lanerako prest, edozein gauzetan: garbiketa, elektrizitatea,... ☎ **606 612 834**
- Klase partikularrak ematen dira maila eta ikasgai guztietan, ingelesezko klaseak ere bai. Adin guztietan. ☎ **652 763 264**
- Ordenagailuak konpontzen dira. Prezio merkean. ☎ **646 743 828**
- Gizonezkoa, garbiketa lanak egiteko prest (portalak, bulegoak,...). Auto propioa. Edozein ordutegi. ☎ **605 800 582**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldari laguntzaile izateko prest. ☎ **671 343 612**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizain profesionala. ☎ **649 008 036**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 511 781**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Psikologia ezagutza. Interna edo externa. ☎ **635 313 375**
- Emakumea, lanerako prest: umeak zein nagusiak zaintzen, sukaldari laguntzaile, garbitzailea edo zerbitzari lanetan... ☎ **606 564 293**
- Mutila zerbitzari lanetarako prest. Esperientziarekin. ☎ **689 144 723**
- Neska gaztea, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Neska gaztea, edozein lanetarako prest. ☎ **638 520 765**
- Neska gaztea, edozein lanetarako prest. ☎ **648 505 985**

- Neska gaztea, haurrak zein nagusiak edo garbiketa lanak orduka egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Emakumea, umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Mutil gaztea, edozein lanerako prest. Zerbitzaria, sukaldari laguntzailea, etab. ☎ **690 701 118**
- Emakumea, lanerako prest. Interna. ☎ **668 899 860**
- Neska, umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 420 642**
- Emakumea, pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 17:00etatik goizeko 10.00etara. ☎ **662 247 584**
- Neska gaztea, zerbitzari lanak, garbiketa lanak egiteko prest eta nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **662 273 295**
- Neska euskalduna, prest pertsona nagusiak zaintzeko arratsalde, asteburuetan eta jai egunetan. Klinika laguntzaile titularekin. ☎ **943 748 209**
- Mutil euskalduna, 20-35 adinekoa. Komertzial arloan gaitasunarekin. ☎ **685 714 572**
- Neska euskalduna, etxeko laguntzaile titularekin (UNED), pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez. Marta. ☎ **675 711 658**

### ESKAINNTZA

- Astean behin edo bitan baxu klaseak emango dizkidan norbaiten bila nabil. ☎ **652 718 421**
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. ☎ **943 743 196**
- Udalak Berdintasun teknikaria behar du. ☎ **943 741 050**

## ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Ganbara alokagai, 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. San Frantzisko kalean. ☎ **639 017 752**

- Basarte kalean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainu-gela, egongela eta sukaldia. Egoera onean. Berria. Altzariekin. Garajea eta trasteroa. ☎ **669 627 655**
- Santa Ana kalean etxea salgai, sukalde, egongela eta 3 gelarekin. ☎ **639 318 477**
- Lokal-estudio txikia alokatzen da San Roken. 18 urtez gorakoentzat. ☎ **667 838 858**

## GARAJEAK

- Garajea salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m<sup>2</sup>+13m<sup>2</sup> ☎ **620 856 768**
- Seat Ibiza (SS-BH) saltzen dut. 58.000 kilometro, ondo zaindua. Modu onean. ☎ **659 358 141**
- Telefonica parean garaje itxi bat alokatzen da. ☎ **943 742 931**

## BESTELAKOAK

- Bi mexikano mozerro saltzen ditut, gizonezkoena eta emakumezkoena. Behin bakarrik erabiliak. ☎ **943 740 079**
- Labadora bat saltzen da, Edesa markakoa. Egoera onean. Prezioa: 100 euro. ☎ **679 767 589**
- Betaurrekoak aurkitu ditut Azkarateko bide zaharretan. ☎ **943 531 537**
- Izotz pista desmontatzerakoan 140 cm tallako txamarra bat aurkitu dugu. Debemen elkartearen dago txamarra. ☎ **943 744 067**

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero [barren.iragarkilaburak.com](http://barren.iragarkilaburak.com) atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pai. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulo  
Tel. 943 743 570

**DEKORAZIOA**

Kango eta barneko estaldura  
Zokak-sartas  
Lanak: egur, aluminio, PVC,  
Pintua onakorra






**ECANTZADOS S.COOP BUKATU.**

OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6  
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98  
20870 ELGOIBAR  
E-posta: [bukatu@bukatu.es](mailto:bukatu@bukatu.es) - Htt: [www.bukatu.es](http://www.bukatu.es)





• Zorionak, **Ane**, atzo 10 urte egin zenituelako. Aita, ama, senide eta lagun guztien partez.



• Zorionak, **Beñat**, zapa-tuan 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Urko**, urtarillaren 27an 9 urte egin zenituelako. Arreba Izaro, gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Arhane**, zure 7. urtebetetzean. Besarkada handi bat lehengusu Goiatz eta Sugarren partez.



• Zorionak, **Julen**, zure 7. urtebetetzean. Etzekoien partez, patxo bat.



• Zorionak, Eneritz eta Alvaro, **Julen** jaixo dalako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Malen**, hilaren 24an 2 urte egin dituzulako. Familiakoen eta Nora eta Leireren partez.



• Zorionak, **Irenel** Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



• Zorionak, **Markel**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat etzekoien, eta bereziki, Nora eta urrutiko tia Mirenen partez.



• Zorionak, **Miren!** Astelehenean, hilak 1, 10 urte dagoeneko! Ze pasada! Ondo pasa!



• Zorionak, **bikotel** Zoriontsuak izan eta ondo ibili oporretan. Lagunen partez.



• Zorionak, **Markel**, gaur 6 urte egin dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta arreba Maialenen partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro.**

**Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARRENekeo bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**BARRENekeo erretratuak salgai!**

BARREN astekarian edo [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)







## 4 eguena

### Santa eskea

14:30 Baserrietako santa eskea

Elgoibarko Izarrak antolatuta, baserriz baseri arituko dira hainbat herritar santa eskean.

### Santa eskea

15:30 Ikastolako santa eskeko kalejira

Ikastolakoek santa eskeko kalejira egingo dute. Euria egiten badu, Ikastolako frontoian.

## 5 barixakua

### Antzerkia

22:15 'Isladak'

Taupada Antzerki taldeak *Isladak* lana taularatuko du, Herriko Antzokian.

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Marketing plana

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-01  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Otsailak 1

### Segurtasuna makinetan

Norentzat: Mantenuko langileentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Otsailak 8

### Internet eta Intranet

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Otsailak 8

### Negoiazio teknikak

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-10  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Otsailak 10

### Microsoft Word aurreratua

Norentzat: Word programa sakondu nahi dutenentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-15  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Otsailak 15

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

## PSIKOLOGIA — SEXOLOGIA

Ana Oiarzun Zabaleta



### AHOLKULARITZA eta BITARTEKARITZA

BIKOTEA: gatazkak,  
dibortzioa, ...

FAMILIA:  
gurasoak/sem-alabak, ...

Bias Etxebarria 2 - behea  
Telf. 943 20 08 20 Mobila. 635 74 62 50



### «Mal día para pescar» (Ongarri zine-kluba)

4. eguena: 21:30

Uruguai-Espainia, 2009. Zuz.: Alvaro Brechner. Akt.: Gary Piquer, Jouko Ahola. 100 min.

Borroka libreko munduko txapeldun izandako bat eta haren managerrak

bidaia luze bat egingo dute, garai bateko distira berreskuratu nahian. Juan Carlos Onetti idazlearen ipuin baten adaptazio zinematografikoa da.

## Erretratu zaharra



1947

Maite Vallejorena da 1947. urteko argazki hau. Urriaren 19an atera zuten erretratu, misio egunean. Txino jantzita ageri dira neskatila horiek, izan ere, misio egunean Txinako umetxoentzako diru-bilketa egiten zuten. Gogora ditzagun zein diren neska gazte horiek: **Goian, ezkerretik eskumara:** Miren Beloki, Arantza Etxaniz, Agurne Etxaniz, Karmele Gabilondo, Karmentxu Azkue (†), Mari Paz Gabilondo, Miren Opazeza. **Makurtuta, erdian:** Maria Luisa Urrutia eta Celia Juaristi. **Lurrean eserita, ezkerretik eskumara:** Isabel Aizpirtarte, Maite Vallejo, Maria Dolores Iriondo, Mari Tere Galdos, Arrate Ulazia.

## Gure berbak **Hiztegixa: adberbixo batzuk (7)** Hona Elgoibarren erabiltzen diran adberbixo gehixago:

- ◆ **PASADIZIAN:** Ondotik pasatzerakoan. “De paso”. *Ba, hemen, pasa(d)izian, jende morduak ikusten dot.*
- ◆ **PEGANTE:** Kontra, ondo-ondoan. *Behian, kriaueña ta aparte, pegante baiña. Gu aparte, eskillara banatatik. Guk etxia pegante, baiña guk geure bizimodua aparte. **Kontra-kontra(n)** ere bai.*
- ◆ **POLIKI:** 1. Astiro, soseguz. **Sosiuiz** ere erabiltzen da. 2. Ondo. –*Bai, bai. Oso poliki dao frontoi berrixa. –Bai, arreglauta oiñ. Holako bat biha zan San Migelen. / Pagau ere ondo eingo da, baiña jan... Bai, bai, oso poliki dao [jatetxea].*
- ◆ **POR EJENPLO:** Adibidez. *Por ejemplo, zapatuan San Isidro eguna dator, ta orduan Arratera jungo gera, ondo gerala. **Konparaziotarako** eta **Esate batera(ko)** eta ere bai.*
- ◆ **PORSIAKASO:** Badaezpada (ere). **Badaezpada** ere erabiltzen da.
- ◆ **RI-RA:** Onomatopeia. Azkar. **Di-da** ere bai. *Ri-ra ein juau dana, hasi eta amaittu egun batian.*

- ◆ **SAILLIAN:** Bereizketarik gabe. “Uno tras otro, en tropel”. *Hasarratu zuan, hasi zuan joka, eta saillian e(r)atxi jaituan danak.*
- ◆ **SALTAKA:** Korrika. **Antxitika** ere bai. *Haura [erromeria] amaitze zuan, eta gero aber ze eitte genduan! Kurutzetan beranduago haste zuan, zortziretan ero igual. Eta haura amaittu, eta Kurutzetara etortze giñuazen, saltaka.*
- ◆ **SALTZEKO (egon):** Salgai. *Bizikletia erosi nahi nion Gelatxorrotako ugazabari. Eta galdetu nion zenbat diru biha zaban, saltzeko zauan da.*
- ◆ **SARRI:** Maiz, askotan. *Hona, Elgoibarrera sarri etortzen dok Mendaroko andra hori, azokara ta. / Koiñaua da afizio haundikua, honen anaixa basarrikua, eta ni harekiñ Azkoitxira ta sarri jun izan naiz idi-probak ikustera.*
- ◆ **SARRITTAN:** 1. Maiz, askotan. *Ikus **Sarri** sarrera. Sarritan hobe izeten dok etxian gertzia kalera ertetzia baiño.*
- ◆ **SEGITTUAN:** Berehala. *Kastellanua baldin bazan eo... geiztuaua, baiña euskalduna ba-*

- zan, segittuan dominatzen najittuan. **Segiduan** aldaeran ere erabiltzen da. *Ni enixela. Bera etortzeko segiduan. Da halaxe etorri zan. / Hori Freiren industria hori ere hortarako dedikau zebeñ segiduan. **Belaxe** ere erabiltzen da, nahiz gutxixeago. Denborazko perpausak osatzeko ere erabiltzen da adibderbio hau: **-tu eta segittuan**. Erten biha(r) zuan bazkaldu ta segittuan.**
- ◆ **SEKO:** Sakonki lo egon, gelditu. *Seko gelditu dok lotan.*
- ◆ **SIMAUARKETAN (jardun):** Zelai edo soro batean, simaurra zabaltzen aritu. **Simaurretan** ere bai.
- ◆ **SOKASALTUAN:** Haurren jolasa, batzuek sokari eragin eta beste batzuek jauziak egiten dituzte. *Sokasaltuan-da ibiltze giñan.*
- ◆ **SOSIUZ:** Poliki, astiro. *Nik gerrako kantua jakixaz morduak. Ni sosiuiz-sosiuiz haste naizenian, da! jota illaria jaukat! **Poliki** eta **astiro** ere bai.*

Jesus Mari Makazaga





# OSASUN GIDA



## **MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK**

### ***Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.***

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)

San Bartolome, 29

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### ***Sanatana Dharma Yoga Elkarte***

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### ***Pakene Ongizate Integraleko Zentru Berria***

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...), Tel: 943 254 505

## **FISIOTERAPIA**

### ***Ainhua Fisioterapia***

Tel.: 943 531 953 /669 565 745

Jausoro, 6 behea.

Goiz eta arratsaldez.

## **OPTIKAK**

### ***Ikus optiko-optometrista***

San Bartolome, 10

Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ***Uzuri***

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## **HORTZ KLINIKAK**

### ***Irale***

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - [www.irale.com](http://www.irale.com)

### ***Leku eder***

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behea.

Tel: 943 530 053

[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### ***Beitia Arriola***

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

## **PODOLOGOAK**

### ***Oinberri***

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

### ***Iñigo Arrillaga Yudego***

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Orduetgia: 9:30-13:30 /15:30-19:30

## **MASAJISTAK**

### ***Victoria Iraegi***

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping

neuromuskularra", lehiaketa

bendajea). San Frantzisko kalea,

40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## **ORTOPEDIKAK**

### ***Itziar Sarasketa***

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00



# ikastolak etorkizuna ereiten



aurre-matrikulazioa

otsailaren 1etik

otsailaren 12ra



943 744441

[www.elgoibarikastola.eu](http://www.elgoibarikastola.eu)

[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)



Aurkezpen bilera irekia:  
otsailaren 1ean, 19:00  
Ikastolan



# elgoibar ikastola

